

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jean Goñi

*Baigorri,
Nafarroa
Beherea (1949)*

Aurkibidea



Biografia



Baigorri jaioa, ama Iruritakoa zuen (Nafarroa); ez zuen aitarik ezagutu. 9 urtera bitarte lehengusuekin bizi izan zen Jean, seme bakarra; amak hotel batean egiten zuen lana. Gero, ama ezkondu egin zen (gizona Hazparnekoa zen eta bi alaba zituen) eta Baionara joan ziren bizitzera. 14 urte arte ibili zen eskolan eta ondoren fruta biltegi batean egin zuen lana. Futbolean, pilotan eta bizikletan ere ibili zen. 21 urterekin (1970) Ameriketara joan zen; bi osaba zituen Bakersfielden. Egun gutxi egin zituen artzain eta San Franciscora joan zen baratze-landetara. San Rafaelen baratze-negozioa erosi zuen gero. Lau urteren buruan Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuen: Baionan soldatzaile-ikasketak egin zituen, eta bazuen lanerako aukera, baina Amerika nahiago zuela konturatu zen eta 20 hilabeteren ondoren San Franciscora bueltatu zen. San Brunon baratze-negozioa erosi zuen eta hori izan du bizibidea. Bakersfieldeko emakume batekin ezkondu zen eta bi alaba izan zituzten. San Franciscoko euskal etxearen sortzaileetako bat da eta mus txapelketetan parte hartzen du.

Zintak

BAI-016

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-10-05
- **Iraupena:** 86 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com